

### 3.GAIA: EKONOMIAREN GARAPENA ETA GLOBALIZAZIOA

#### 1.ZATIA:GARAPENA

#### 3.1 Garapen ekonomikorako oinarriak:Nola ematen da garapen ekonomikoa?

Garapen ekonomikoa **energia iturri eraginkorrago** eta **garapen teknologikoarekin** batera ematen da.Honek gaitasun produktiboak gora egitea dakar,lanaren banaketa eta espezializazioa bultzatuz.

XVII-XXI mendeetan **ekonomia industrial**a ematen da, energia iturri berriek eta berrikuntza teknologikoek, **eskala ekonomiak gora** egitea dakarrelarik. Honen ondorioz, kontzentrazio bat ematen da, enpresak gero eta handiagoak dira, soldatapeko prozesua ematen da eta autonomo eta enpresari kopuruak behera egin du.

Industria iraultzak:

Lehenengo industria iraultza , Britainia Handia XVIII.mendean, lurren-energia eta iraultza, makinak garatu eta industria lana hasten da. Hasieran Britainia Handian, gerora Mendebaldera zabaltzen da.Bigarren Industria Iraultza, XIX.mendearen amaiera eta XX.mende hasiera,gasa, petrolio eta elektrizitatea.

**Benetako jauziak energia iturri eraginkorragoekin ematen dira, nahiz eta teknologiaren bidez ere garapen bat ematen den.** Honela gaitasun produktiboa aregotuz doa, eta lanaren banaketa eta espezializazioarekin gaur egun dugun ekonomia garatuz joan zen. Hau da, **makinaren lana emateko teknologia bat behar da, baina horretarako ezin bestekoak dira energia iturriak edota lehengaiak.**

Ekonomia primitiboan, autokontsumoan oinarritzen ziren, aurrerapen teknologikorik ez dagoenez produzitzen duten guztia euren kontsumorako da. Baina garapenarekin, nekazaritzarekin esaterako, euren biziraupenerako baino gehiago produzitzen dituzte, eta hortik ofizio batzuk sortzen dira ,gaindikinen kontzeptua sortzen da, eta horrekin beste jarduera guztiak finantziatzen dira, **egitura sozial guztiak gaindikin produktibo horren ondorioa direlarik.** Hortik lanaren espezializazioa eta lanaren banaketa.

Energia iturri berriak eta berrikuntza teknologikoak , honek eskala-ekonomikoak bultzatzen dituzte, hau da, aukera gehiago dago produzitzeko gauzak merkeago saltzen badira.Egiturak gero eta handiagoak izanda, errazagoa da produktuak merkeagoak sortzea. Hasieran autonomoak zirenak enpresa txikietan hasten dira batzen eta hauek enpresa handietan batuz doaz denborarekin, gaur egun multinazionalak errealitate bat direlarik. Honek ez du esan nahi autonomoak desagertu zirenik.Enpresak konzentratzen dira, gero eta enpresa handi gehiago, beraz enpresari eta autonomo gutxiago eta langile gehiago (soldatapeko langile gehiago ekonomian) daude.Eskala ekonomiak honako joera sustatzen du: Kontzentrazioa, enpresa gero eta handiagoak, soldatapekotze prozesua, autonomo eta enpresarien kopurua jeistea...

Izan ere, gaur egun, langileak %85 dira, autonomoak %10 eta enpresariak %5 dira, eta hau da prozesu historiko honen ondorioa. Herri aurreratuetan: %95, %3,%2, autonomo eta enpresari are gutxiago ,baina langile gehiago.

### **3.2 Hazkundera eta garapena. Ikuspegi alternatiboak garapen ekonomikoa neurtzeko.**

#### 3.2.1 HAZKUNDEA BPG MAXIMIZATZEA

Hazkundera garapen ekonomikoaren neurri gisa definitzen da.Hazkundera, barne produktu gordina haztearekin lotzen da, hau da, ondasun eta zerbitzuen ekoizpen edota produkzioaren loturarekin.Ondasun eta zerbitzuen ekoizpenak gora egiten badu,produkzioak, BPGek ere gora egingo du.

Teoria honen kritikak:

-Ez du zentzurik lurralde bakoitzeko prezioen maila ez bada kontuan hartzen. Hortik sortzen da,**EAP**, herrialde bakoitzean **erosteko ahalmen parekatuaren** arabera neurtutako BPG.

Hau da, lurralde bakoitzak prezio maila ezberdina dauka, beraz ez badugu kontuan hartzen ez du zentzurik, herrialde bakoitzean diru kopuru berdinarekin gehiago edo gutxiago erosi daitekeelako, beraz prezioaren diferentzia kontuan hartu behar da, hau da, **ez bakarrik produkzio ahalmena, baita erosmen ahalmena ere.**

-Ez dauka zentzurik ez bada kontuan hartzen biztanle kopurua eta biztanleriaren hazkundera, hau da biztanleko BPG edota **Errenta Per Capita**. Bestela Indian adibidez BPG handiagoa izan daiteke beste nonbaiten baino, horregatik garrantzitsua da biztanleria kopurua kontuan izatea.

Lurralde batzuetan, produkzio osoa eta errenta osoa berdinak dira. Merkatuaren zirkulu itxia.Biztanleko errenta eta biztanleko produkzioa berdina da. Enpresak produzitu baina soldatak ordaindu ...Ekonomiaren zirkuituan produktu osoa eta errenta osoa berdinak dira. Errentak pertsonaren lanaren bidez lortutako diru kopurua da, hauek aldi beran kontsumitzaileak dira. Produzitzen dena edota errenta dena neurtzen da, eta hauek berdinak dira. Zirkuitu horretan baliabideak etengabe pasatuz doaz.

**Hazkundera beraz, funtsezko faktorea da garapen ekonomikorako, baina ez da bakarra.**Beste adierazle batzuk gero eta garrantzitsuago bihurtzen dira , oinarrizko beharrak asetzen diren arabera. Hazkundetik aparteko beste adierazle batzuk aurkitzea ez da erraza. Errenten desorekak neurtu behar dira, zorpetzea, hazkunderaren iraunkortasuna, gizartearen ongizatea...

Adb,Nazio Batuen Erakundera: Giza Garapenaren Indizea.

Hazkundearen teoriaren inguruan egondako zalantzekin, Nazio Batuen Giza Garapenaren Indizea sortu zen. 1990tik Giza Garapenaren Indizea kalkulatzeko Nazio Batuen garapenerako programak hiru ardatz erabiltzen ditu: 1) bizitza luze eta osasuntsua izatea; 2) ezagutza-maila; 3) bizitza duina izateko beharrezko baliabideak eskuratu ahal izatea.

Jakina, giza garapenaren kontzeptua indize batean bildu daitekeena baino zabalagoa da, eta honakoak ere kontuan hartu beharko liriateke: askatasun politikoa, ekonomikoa eta soziala; bizitza sormenduna/produktiboa izateko aukera; giza eskubideen bermea...

Giza Garapen Indizea kalkulatzeko biztanleko errenta zenbat eta handiagoa izan, orduan eta eragin txikiagoa haren eragina (logaritmoak erabiltzen dira) hala ere, indizeak islatzen dituen emaitzak ez dira gehiegi aldentzen biztanleko errentaren araberrako emaitzetatik. Oso lotua dago errenta per capitatekin.

Beraz garapen ekonomikorako ohiko kontzeptua da hazkundera eta bere adierazlea da BPG, izan ere BPGaren aldaketekin neurtzen baita.

BPG=Urte batean herrialde baten sortutako errenta, sektore guztietan (nekazaritza, industria, zerbitzuak) produzitzen diren produktu eta zerbitzuak.

Errenta per capita= Ekonomia baten batez-besteko bizitza maila. Honen bidez, herrialde aberatsak (garatuak) eta herrialde pobreak (garapen bidean daudenak) bereizten dira. Herrialdeen artean biztanleko BPG alderatzeko tresnak:

a) Moneta ezberdinak, merkatuko truke tasak, hau da moneten hartzeko truke tasak kontuan izan behar dira.

b) Erostea ahalmena, prezioen araberrako ezberdintasunak kontuan hartzeko. Diru berdinarekin leku batean edo bestean gaitasun desberdina dago eroste. Nahiz eta euro kopuru maila berdina eduki Euskal Herrian agian gehiago erosi dezaket, Eurogunean. Bizitzaren kostua hartu behar da kontuan, prezioak %10 altuagoak badira, zure errenta ere %10 handiagoa izango da.

Beste adibide bat: Zorpetzea. Zorpetzeak zalantzan jartzen du BPG-ren erabilgarritasuna.

Zorrak hartzea, maileguak eskatzea. Langile batek mailegua eskatzen badu, bere soldata eta mailegua, diru gehiago dauka gastatzeko, hau onuragarria da BPG-rentzat. Enpresak maileguak eskatzean inbertsio bat egiten du, gehiago produzitu dezake eta sarrera gehiago izan eta gobernuak zergekin nahikoa ez badu ere, mailegua eskatzen du.

Zorpetzea, oso ona da BPG-rentzat. Zorpetzea gora badoa, BPG-a gora doa. Baina zorra bueltatu behar da, eta baita interesak ere. Beraz zorpetzea behera badoa, BPG-a ere behera doa, gastatzeko ahalmena murrizten da. Zorrak itzultzean, negatiboa da BPG-rako. Beraz, **BPG-a neurtzeko kontutan hartu behar da, hori lortzeko herrialdea zenbateraino zorpetu den.** Baina hau ez da gertatzen, etengabe gabiltzalako maileguak eskatuz zorpetze hori kontrolatzeko.

Zorrak handiagotzerakoan, dituzten errenten arabera baino ondasun eta zerbitzu gehiago erosteko aukera dute gizakiek. Eta enpresek eta gobernuek ere, dituzten sarreren arabera baino gehiago. HORRELA, handitu egiten da BPG .

Baina zorpetzearen ondorioz: eskuratutako dirua itzuli eta interesak ere ordaindu behar dira. Beraz, gizakiek, enpresek eta gobernuek duten gastatzeko ahalmena murrizten da. HORRELA, BPG ere murriztu egiten da.

Ez da berdina zorpetzea inbertsio edo kontsumorako erabiltzea. Zorra inbertsiorako erabiliz gero produkzioa igotzeko aukera dago. Hau da interes tasa % 2 izan daiteke eta produkzioak %4 egitea gora, hortaz horrela interesak itzuli daitezke eta BPG %2a igotzen da.

Gastu edo kontsumorako hartzen diren zorrak ezberdinak dira oro har.

Zor horien ordainketa atzeratuz, hurrengo belaunaldiaren lepotik aberasteko aukera izan dezake belaunaldi batek. Metatutako zor horiek ordaindu beharko dituelako hurrengoak. Horixe gertatu da Europan 70etako hamarkadatik aurrera. Garai (neo)liberalaren "hazkundera", neurri handi batean, gero eta zorpetze maila handiagoan oinarritu da eta.

**1970etan hazkunderaren mugengatiko kezka azaldu zen (Erromako Kluba). 1980etan hainbat arazo edota erronka berri aurre egin beharra zegoen: Industrializazioa, kutsadura, baliabideen agortzea.... Sistema ekonomiko eta oreka ekologikoa ezinezkoa dira?**

**Zorpetze maila krisi garaian mantentzen da artifizialki (banku zentrala) beherantza ez joateko.**

**Garai neoliberallean hazkundera bilatu arren ez zen handia izan, soilik %2 gutxi gorabehera.**

Thomas Malthus (1766-1834): Biztanleria progresio geometrikoan hazten den bitartean, elikagaien produkzioa progresio aritmetikoan baizik ez da hazten. Beraz, biztanleriaren hazkundera ez da eutsigarria .Erromako Kluba: Neo-malthusianismotik hurbil zegoen zientzialari eta politikoei osatutako taldeak sortuta 1968an.

Thomas Malthusen teoriari jarraituz, zeinaren arabera desoreka nabaria dago biztanleriaren bilakaera eta elikagaien produkzioaren bilakaeran, eta handiagoa zela biztanleriaren hazkundera eta nozbait lehertuko dela, baina hau garapen teknologikoagatik ez zen gertatu. Jarraian, Erromako Kluba sortu zen, enpresari ezberdinekin, teoria horiek lantzeko.

Hala ere, kontuan hartu behar da aurreikuspen horietako asko ez direla bete. Malthusen iragarpenak elikagaiei buruz, ozono geruzaren desagertzea edota petrolioaren agortzea.

Gaur egun herrialde garatu eta garatu bidean dauden herrialdeen artean karbonoaren inguruan eztabaida asko daude.

Hazkundera: BPG-ren garapenean zentratu

Garapen ekonomikoa: Beste faktore batzuk aztertu BPG gabe.

### 3.2.2 GARAPEN IRAUNKORRA, JASANGARRIA, EUTSIGARRIA EDOTA SOSTENGARRIA

Brundtland txostena = Ingurugiro eta Garapenerako Munduko Batzordea

Garapen iraunkorra: gaur egungo belaunaldiaren beharrak asetzen ditu, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko gaitasunak zalarrian jarri gabe. 3 kontzeptu biltzen ditu: (Oraingo hazkunderarekin zer puntura arte konprometitu geroko hazkundera?)

**-Iraunkortasun ekonomikoa** : Oraingo garapen ekonomikoak ez du geroko garapen ekonomikoa baldintzatu behar. Oraingo hazkundera ez du konprometitu behar etorkizuneko hazkundera. Adb: Lehengaien agorpena, gain-zorpetzea, jaiotzatasa.

**-Iraunkortasun soziala**: Oreak sozialak, aberastasunaren banaketa, lanaldia, elkarbizitza, etab. Lanaldia eragile sozial garrantzitsua da. Bi herrialdek BPG bera badute eta batzuek astean 35h eta besteek 40h lan egiten badituzte, argi dago zein den eraginkorragoa.

**-Ingurugiro-iraunkortasuna** , hazkundera lortzeko zer puntura arte gaude ingurugiroa kutsatzen.

### 3.2.3 DESHAZKUNDEA

Deshazkunde kontzeptua antiglobalizazioaren gizarte mugimenduetan sortu zen, **etengabeko hazkunderaren ideari aurre egiteko asmoz sortu zen**. Hauen ustez, gaur egungo hazkundera artifiziala da, behar dena baino gehiago kontsumitzen da. Latouchen arabera kontsumo-gizartearen zirkuluak honakoak biltzen ditu:

1. Publizitatea: Kontsumitzeko desioa sortu.

2. Kreditua: Bitartekoak eskaini. Kreditu eta banku zentralen monetekin, jendeak beharrezkoa dena baino gehiago kontsumitzea lortu.

3. Programatutako eta azeleratutako zaharkitzapena (obsolescencia) , beharrak berritzeko. Erosleak ez dira produktuaren iraupena baloratzeko gai, enpresak orduan ziurtatzen du produktuak asko ez irautea, gehiago saltzeko. Kalitatea eta itxura balora daitezke, baina ez zenbat iraungo duen.

### 3.2.4 GAITASUN PRODUKTIBOA HELBURU GISA

Gaitasun produktiboa hobetzea helburu gisa duten teoriak, **biztanleko gaitasun produktiboa handiagotzea dute erreferentzia gisa**. Horretarako: Gaitasun energetiko eta teknologikoa, azpiegiturak eta gizakien batzuek beste prestakuntza sustatu behar dira. Ez du nahitaez eskatzen produkzioa handiagotzea. Gizarte bakoitzaren helburuen arabera, hauek izan daitezke ondorioak: produkzioa handiagotu, lanaldia murriztu, iraunkortasuna sustatu, bizitzaren kalitatea hobetu.

Gaitasun produktiboa biderkatzen bada, ondasun eta zerbitzu gehiago produzitu genezake edota lanaldia laburtu. Hau da, gizarte bakoitzak dituen helburuen arabera, desberdinak dira gaitasun produktiboen hobekuntzaren ondorioak.

### **Beraz, BPG-ari egindako kritikak:**

**1. Produkzioa eta hazkundera neurtzeko arazoak.** Ez da kontuan hartzen autokontsumorako produkzioa, merkatutik kanpo etxean egindako lanak... (Jarduera ekonomikoaren azpibalorazioa). Produkzioa eta hazkundera neurtzeko arazoak: autokontsumorako produkzioa, eta merkatutik kanpo diren etxean egindako lanak eta zaintzak ez dira kontuan hartzen, jarduera ekonomikoaren azpibalorazioa, etc. (Saltzen eta erosten ez dena ez da neurtzen.)

**2. Ondasun eta zerbitzu produkzioa ez da ongizatearen adierazlea.** Ez da kontua hartzen errenta banaketa edota positiboak ez diren ekintzen produkzioa (armak). Ondasun eta zerbitzu-produkzioa ez da ongizatearen adierazlea: ez da kontuan hartzen errentaren banaketa BPGa berdin-berdin handitzen da biztanle aberats eta biztanle pobre baten euro batekin, berdin-berdin kontuan hartzen da elikagaien eta armen produkzioa ongizatea bultzatzen (kaltetzen) duten jardueren azpibalorazioa (gainbalorazioa).

**3. Ez du kontuan hartzen sostengarritasun ekonomikoa.** Ez da bereizten jarduera kutsakor eta ez kutsakorra edota ez da kontuan hartzen baliabideen desgastea. BPGak ez du kontuan hartzen sostengarritasun ekologikoa: -ez ditu ezberdintzen jarduera kutsakorrak eta ez-kutsakorrak ez da kenketarik egiten ingurugiroa kaltetzean; are gehiago, kutsadura kentzeko gastuak batzen dira, ez du kontuan hartzen natur baliabideen desgastea (hazkunde ekonomikoaren gainbalorazioa).

### **3.3 Generoa eta garapena:**

**Azterketa historiko bat eginda, gizon eta emakumeen arteko lan banaketa bat ikusten da. Emakumeari etxeko lana dagokio eta gizonari lanbide edota lan produktiboa.**

XX. mendean aurrerapen teknikoa ematen da eta indar fisikoa garrantzi gutxiago hartuz doa **lan profesionala gero eta erakargarriago bihurtzen delarik**, ez da lehen bezain gogorra edo deserrosoa. Beraz **zergatik ez ekarri emakumea lan produktibora?**

XX. mendeko 70eko hamarkadan Ipar Europako Mugimendu Feministak emakumearen lanaratzeari sustatu nahi du. Ezin daiteke oinarritu familiako asteko 40 lan ordu gehitzean eta **lana banatzean oinarritu behar da, bai etxekoa, bai merkatukoa.**

Baina guztiz kontrakoa gertatzen da, familia bakoitzeko asteko 40 ordu baino gehiago lan egitea eta **prozesuaren helburua** ez zen emakumearen emantzipazioa izan, baizik eta **lan esku merkearen horniketa sustatzea.**

Ondorioak honako hauek izan dira:

-Familia lanaren gain-ustiapena. (Sobreexplotación)

-Lansari berdinarekin jende gehiago mantendu.

-Kontsumo gaitasuna handitzen da (bi soldata, haur gutxiago eta lan gehiago)

-Astialdiaren murrizpen nabaria, bereziki emakumeena.

-Jaiotza-tasa beherapena.

-Hainbat emakumeren gain-esplotazioa hainbat belaunalditan. Asteko 80,90 edo 100 lanordu. Eta hau dena lana ez delako kontuan hartu ekonomiaren azterketan.

**Oinarrizko helburua teoria onena, enpresen etekinak sustatzea izan zen, lan-esku merkearen horniketa sustatuz. Akats kontzeptuala: Etxeko lana ere lan produktibotzat ez hartzea.**

Beste batzuek sistema politikoen lehia ere jartzen dute ardatz. Emakumearen laneratze prozesua sobietar batasunean arinago jarri zen martxan, gerra hotzean bi blokeak gerra egon zirenean ikusi zen, erabaki hori egokia izan zitekeela eta Mendebaldera ere zabandu zen.

**Genero Ezberdintasunaren Indize** bat dago emakumeak gizonetikiko duen desabantailak 3 dimentsiotan adierazten dituena, ugalketa-osasuna, jabetzeta/ahalduntzea eta lan-merkatua.

Indizeak ez ditu dimentsio garrantzitsuak kontuan hartzen, datu falta dela-eta: denboraren erabilpena, jabetza-eskuragarritasuna, lanbide-banaketa, soldata-arrakala...

Genero-ezberdintasunaren indizea ez dago lotuta giza garapen indizearekin, baina emaitzek agerian jartzen dutenez badago erlazioa: **giza-garapen indizea txikiagoa den herrialdeetan, genero-ezberdintasuna handiagoa da.**

Praktikan genero-ezberdintasunaren indizea ere errenta per capitaren arabera neurtzen da.